

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Tokiko Gobernu Batzordearen 2016ko irailaren 8ko erabakiaren laburpena; horren bidez, bekak deitzen dira, 2016an aisialdiko monitore eta aisialdiko zuzendari titulu ofiziala ikastearren**

BDNS (identifikatzailea):317165

Bat etorri Dirulaguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin (38/2003 Legea, azaroaren 17koa), argitara ematen da deialdiaren laburpena; deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu ahal da (<http://www.pap.minhp.gob.es/bdnstrans/index>):

**Lehenengoa. Onuradunak:**

Amurrion erroldatuta dauden pertsona fisikoak, ikastaro guztia euskaraz ikasi dutenak, baldin eta ikastaroak, gutxienez, 200 ordu teoriko izan baditu.

**Bigarrena. Helburua:**

Deialdi honen helburua da Amurrioko herritarren artean 2016an aisialdiko monitore eta aisialdiko zuzendari titulu ofiziala lortzea sustatzeko laguntza ekonomikoak arautzea.

**Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:**

Amurrioko Udaleko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 27ko erabakiaren bidez onetsi zituen, eta eduki osoa urte bereko ekainaren 17ko 69 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen.

**Laugarrena. Zenbatekoa:**

Deialdi honetarako zuzkidura 2.050 eurokoa da.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea:**

2016ko urriaren 1etik 31ra

Amurrion, 2016ko irailaren 14an

*Alkatea*

*JOSUNE IRABIEN MARIGORTA*